

nazio arazoak / gutxiengoak

Txekoslovakia

LABURREAN

Eslovakiarrek batasuna zalantzan jarri dute independentzia eskatuz

1938ko Estatu klerikal-fasista eslovakiarra erreibindikatzen ere iritsi dira

Txekoslovakia bere historia guztiko krisirik handienean murgildurik dago, 1918an austro-hungariar inperioa desegin ondoren jaio zenetik, Europa Erdiak Gerra Handian jasandako porrotaren ondoren. Eslovakiako joera nazionalistek Estatu honen desintegrazioa ekar lezake berehala, txekiar eta eslovakiarren arteko ezberdintasunak geroz eta handiagoak direlako.

BRATISLAVA

1938ko Munchen-eko hitzarmenak eta ondorengo okupazio naziak lortu ez zutena, bi herri hauen arteko ezberdintasunak lor dezakete denbora gutxi barru; Estatuaren desintegrazioa hain zuzen.

Eslovakiako agintari gorengoek, horien artean Jan Carnogursky lehendakari eslovakiarrak eta Frantisek Miklosko-k, errepublikak horretako Legebiltzarreko lehendakariak, Estatu klerikal-fasista ere erreibindikatu dute, hau da, 1939an Bohemiaren okupazioa gauzatu aurretik alemaniarren aginduz sorturiko Estatuak.

Jiri Dienstbier, Kanpo Arazoetako ministro txekoslovakiarraren ustez 1939ko Estatu eslovakiarra onartuz gero, «Eslovakia II Mundu Gerran garaitutako estatuen barnean sartuko litzateke».

Txekiarrek eta eslovakiarrek negoziaketa asko egin dituzte maila orotan, eta horietan lorturiko kontsentsuaren ondorioz bazirudien



I. MARTIARENA

konponketa batera iritsi zirela, baina «dirudienek, denbora irabazteko taktika bat izan da, horrela plangintza eslovakiarra aurrera eramateko» Jan Strasky, Gobernu txekiarreko lehen ministrordearen iritziz.

Aditu politikoen ustez, «plangintza eslovakiar» horrek independentzia baizik ez luke eskatuko.

INDEPENDENTZIARI BURUZKO JARRERAK Eslovakiako Gobernuak lehendakariak asteazkenean publikoki adierazi

zuen, etorkizunean Bohemia eta Eslovakiako izarrak Europako banderaren itsatsiak ikusi nahiko lituzkeela eta ez soilik izar bakar bat, egungo Estatu txekoslovakiarrari zegokion bezala.

Azkenengo iritzi inkestaren arabera, Eslovakiaren esaten dute hiritarren % 39 independentziaren alde dagoela eta beste % 61 kontra. Datuak guztiz alderantzizkoak dira txekiarren artean, hauetatik % 54 Eslovakiaren independentziaren alde bait dago, eta beste % 46 kontra.

Datu hauek horrelakoak izateak badu bere arrazoia. Izan ere, Bohemia eta Moravia eskualdeek beren garapen ekonomikoa hazia ikusiko lukete Eslovakia bereiztuko balitz, eta Eslovakiak berriz, beherantz

■ **Txekiarrek** Txekoslovakia 15,7 milioi biztanleen % 63,2 dira. Moravia eta Bohemia eskualdeek osatzen dute Errepublik Txekiarra eta hiriburua Estatukoa da, Praha.

■ **Eslovakiarrak** biztanlegoaren % 31,5 dira. Errepublik Eslovakiarrak hiriburua Bratislava da. Eskualde honek, beste errepublikek ez bezala, gutxiengo nabarmen bat dauka: % 10 dira bertako hungariarrak eta nazionalisten kontra daude.

✓ **Jan Carnogursky:** «etorkizunean Bohemia eta Eslovakiako izarrak Europako banderaren itsatsiak ikusi nahiko nituzke eta ez soilik izar bakar bat»

egin luke, Txekoslovakia 15,7 milioi biztanleen % 63,2 dira. Moravia eta Bohemia eskualdeek osatzen dute Errepublik Txekiarra eta hiriburua Estatukoa da, Praha.

KONTZIENTZI NAZIONALISTAREN IGOERA

Eslovakiako kontzientzi nazionalistaren gorakadak, ez soilik hiritarren, politikoengan ere bai, (inkestaren arabera, oraindik batasunaren aldeko jarrera handiagoa badago ere, independentistek asko igo bait dute) Txekoslovakiaren etorkizuna zalantzan jarri du. Azken hilotan, hiru konstituzio eztabaidatzen aritu dira, bata eslovakiarra, txekiarra bestea, eta txekoslovakiarra hirugarrena, baina orain elkarrizketak eten egin dira. Estankamendu honek Vaclav Havel lehendakari txekoslovakiarra erreferenduma konbokatzen bultzatu du.

El Salvadorren Gobernuak eta FMLN lehen aldiz bildu ziren

SAN SALVADOR

‘Farabundo Marti Askapenerako Fronteak’ (FMLN) El Salvadorreko Gobernuarekin izandako elkarrizketak positiboak izan zirela adierazi zuten gerrilako bozeramaleek. Elkarrizketa hauek El Salvadorreko Gobernuak eta gerrilak zuzenean egin dituzten lehenak izan ziren. Bileran Javier Perez de Cuellar Nazio Batuetako idazkari nagusiak proposatu zuen bake prozesua areagotzeko.

Schafik Handal FMLNko komandanteak adierazi zuenez gerrila eta Gobernuaren arteko elkarrizke-

tak hurrengo astera arte luza daitezke. Alfredo Cristiani El Salvadorreko lehendakariak elkarrizketetan ez zuela parte hartzen ere azaldu zuen Handal-ek. Aste honetan El Salvadorreko lehendakaria Perez de Cuellarrekin bildu zen gerrilarekin eztabaidatuko zen dokumentua aztertzeke. Cristianik Nazio Batuen Asanblada Orokorrean hitzaldia emango du datorren astelehenean.

FMLNko komandanteek azaldu zuten Nazio Batuen bidez lortutako akordioak bake prozesuaren 12 atalak bat bakarera murriztuko ditu eta El Salvadorren giro aproposa jartzeko aurrerapausu garrantzitsua da.

MAROKKOKO gartzela ospetsuena suntsitu dute

Tazmamart-eko gartzela jadanik deuseztu dute agintari marokiarrek bertan zeuden preso familetako bozeramaleek adierazi zuten. Bozeramaleek esan zuten Marokkoko Gobernuak preso familei bertan atxiloturik zudenak beste gartzela batzuetara eraman zituztela jakin erazi zieten. Amnesty International erakundeak adierazi zuenez gartzelan horretan, Marokkoko preso historikoak zeuden.

ARGENTINAN Ez Alineatuen inguruko eztabaida hasi da


Dante Caputo Argentinako Atzerri ministroak eta beste zenbait diputatuk Gobernuak Ez Alineatuen Elkartearen uztetako hartu zuen erabakia kritikatu dute. Caputok esan zuenez Carlos Menem lehendakariak erabaki honekin Argentina belauniko jarri nahi zuen Estatu Batuen aurrean, negoziatzeko ahalmenak erabat murriztuz. Caputok Ez Alineatuak nazio ahulen ahotsa mantentzeko erakunde egokia zela adierazi zuen.

FIDEL CASTRO Noriegaren kontrako epaiketan

Fidel Castro, Cubako liderrak bideo baten bidez Manuel Antonio Noriegaren kontrako epaiketan deklaratu zezan eskatu zuen Panamako buruzagia zenaren defentsak. Castroren deklarazioak Noriegak Colombiako narkotrafikanteekin edukitako negoziaketak argi zituzkeen, defentsak esan zuenez. Noriegak Panamako agintaritza bere eskutetan zuzenean George Bush lehendakaria CIAko zuzendaria zen eta epaiketa honen Castro ez ezik CIAko zenabait kargu nahas ditzake.

GREZIAN 7 egunkaritako zuzendariak aske utzi dituzte

Grezian 11 egun gartzelan pasa eta isunak ordaindu ondoren libre utzi zituzte 7 egunkaritako zuzendariak. Grezian Gobernu kontserbadoreak «lege antiterrorista ez betetzeagatik» zenbait egunkaritako zuzendariak giltzaperatzea erabaki zuen. Zuzendariak Greziako talde armatuen komunikatuak kaleratu zituzten, adierazpen askatasunaren printzipioak jarraituz.



ERROMAtik Tunisiara zihoan ‘Alitalia’ konpainia italiarreko hegazkinaren bahitzailea atzo atxilotu zuten Tunis-eko aireportuan. Hegazkinean 137 lagun zihoazen eta bahitzailea harrapatu aurretik bidaiari batzuek askatzea lortu zuten Tuniseko aireportuko ardura-dunek. Bahitzaileak hegazkina Aljeriako aireportu batera desbideratu nahi zuen hasieran baina nazio hartako agintariak ez zioten hegazkinari lurreratzeko baimenik eman. Argazkian bi soldadu tunisiar hegazkin bahitua zaintzen.